



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Katalunia bueltaka

KATALUNIARI eskaintzen diodan hirugarren hausnarketa da denboraldi honetan: lau artikuluetatik hiruk Katalunia izan dute hizpide. Eta, egoerari erreparatzen badiot, ez da azkena izango.

Azaroaren 9an, azkenean, herriak bere iritzia emateko aukera izan zuen, emozio handiz, nahiz eta oso aukera mugatua izan ikuspegi juridiko aldetik –ez zen “ofiziala”–. Badakigu gehiengoak ez zuela parte hartu –%36k eman zuen boza, hau da, 2.306.000 biztanlek–, baina egoera guztiz zaila eta nahasi horretan oso datu adierazgarria da, emaitza zehatza bezala –parte hartu zutenen %80k baietza eman zion estatu independentea eratzeko proposamenari, 1.850.000 inguruk–. Datu horiek bi interpretazio izan dituzte: alde batetik, Kataluniako indar politikoen eta sozialen gehiengoarena, positiboa, eta bestetik, Espainiako indar politikoen eta Kataluniako gutxiengoarena, negatiboa, parte-hartzearen eta independentziaren aldeko emaitza eskasa dela azpimarratuz. Edozein iritzi izanik ere, beste datu objektiboak kontuan hartu behar dira: 2006ko Estatutak 1.900.000 boz izan zituen alde, baina Espainian inork ez du aldarrikatu haren zilegitasunik eza.

Kataluniako gizarte zibilak hartu beharko du berriro ere prozesu horren agintea eta bidea ondo finkatu. Hasieran ez bezala, azkeneko denboraldian alderdi politikoek izan dute protagonismoa

Nola interpretatu politikoki hau guztia eta zabaltzen diren aukerak? Ez da erraza. Nork daki zer gertatuko den? Pertsonaia, aldagai, interes eta kalkulu asko daude. Azter ditzagun elementu batzuk:

Artur Mas, printzipioz, indartsu aterata eta horrela azaldu zen gau hartan, Mariano Rajoyri bi aste epea eman zionean bere eskaerari erantzuteko. Bada, astebete igaro da geroztik eta ez dut mugimendurik ikusten, ezta itxurarik ere.

Alderantziz, aurrera doa PSCrekin mantentzen ari den negoziazioa 2015erako aurrekontuetarako, horrek esan nahi du Masek ez daukala kontsultari berehalako jarraipenik emateko asmorik.

ERC ere egoera onean dago, baina ez da orain hilabete bat uste zuena, Masen indarberritzea dela eta. Gainera, ez zait iruditzen kontsultaren emaitza espero zuenik –itxaropen handiagoa zuela esango nuke, batez ere parte hartzeari buruz–.

Rajoy ere indarberritua aterata dela esango nuke. Ez du kontsulta oztopatu “fisikoki”, “normaltasunez” onartu zuen galdeketa burutzea eta bere eskuinetik kritika zorrotzak jaso ditu horregatik. Gainera, emaitza, esan bezala, ez da izan Katalunian askok espero zutena. Azkenik, fiskaltza lasai eta “independente” dabil asunto horretan, itxura “demokratikoagoa” emanez Espainiako Gobernuari.

Kataluniako gizarte zibilak hartu beharko du berriro ere prozesu honen agintea eta bidea ondo finkatu. Hasieran ez bezala, azkeneko denboraldian alderdi politikoek izan dute protagonismoa –horrela behar zen–, baina horrek, panorama ikusita, ez du bermatzen datozen hilabeteetan herriaren borondatea gauzatu denik. Zeren eta, non daude denek aipatu dituzten hauteskundeak? Orain ez du ematen inori interesatzen zaionik: Mas PSCren sostenguaren bila dabil –legealdia amaitzeko izango da, ezta?– eta ERCk udal hauteskundeak irabazi nahi omen ditu –gainera, azken datuen arabera, CiUk mantenduko luke gehiengo– eta ez luke interes berezirik hauteskunde autonomikoei aurre egiteko.

Eta, bukatzeko, non gelditu da aldeba-karreko independentziaren aldarrikapena? Ulertu dudanez, hau eguneroko lanaren bitartez lortuko litzateke –uzten badiete, noski–. Horretarako, beharrezkoa al zen hau guztia? Kontsultari ematen ari zaion erantzun politikoa bere asmoarekin bat al dator?

Ez dakit, baina orain hilabete bat zirudiena gaur ez dut garbi ikusten. ■

